

## Intimitate pop eta egunerokotik

Víctor Arrizabalagaren jolas birsortzaileak

Fernando Golvano

*Objektuak edo edukiak interesik gabeak bihurtzen dira. Galdera bakarra da "interesik gabeak" diren. Nola izan daiteke interesgarria interesik ez duena? Objektuak objektu-balioa galtzen duenean, nolabaiteko balioa mantentzen duena objektu hori aurkezteko "modua" da. "Estiloa" balio bihurtzen da. "Estiloan" gertatzen da transferentzia.*

**Jean-François Lyotard, Zona**

Artea egiazkoaren beste forma batzuk negoziatzeko modu bat izan daiteke, irudizkoaren beste hedatze batzuk, artearen memoriaren beste jabetze batzuk, desio eta irrika ezberdinak agerrarazten dituzten beste jolas batzuk, eta arteak hori distantzia kritiko, ironiko eta ludiko batetik egin dezake. Víctor Arrizabalagak jardun artistiko bat aukeratu du egiazko--irudizkoaren arlo hori lantzen duen jolas birsortzaile bezala, jolasteko asmo batetik eta edozein hurreratze ironikok adierazten duen desbideratze lapranetik. Bere lanek marrazkia eta forma-sinpletasuna gorai patzen duela dirudien pintura- eta eskultura-modua dute, eta artearen historian errepikatu egiten diren motiboak berregiten dituzte: bai bere emakume-segidak, bai bere natura hilak, edota baita gure egunerokotasuna altzariz janzten duten objektu eta tresnen birsortzeak ere. Kasu horietan, nahaspilatutako altzari bihurtu balira bezala, bere eskultura-lanen diseinuek barnealdeetan (edo batzuetan hiri-eremuan) harridura ludiko eta eroso adierazten dutela dirudi. Gauzen erdian, badirudi bere pinturek eta eskulturek artearen dimentsio atsegingarri hori eskatzen dutela, Mario Perniolak "ez-organikoaren *sex appeal-a*"<sup>1</sup> deitzen duen horretan antzematen dena.

Jakina da programa modernoan berrikuntzak etengabe irrikatzen dituela beste asmakuntza eta birsortze batzuk, artista bakoitzak arreta berezia

<sup>1</sup> Mario Perniolak nabarmendu egin du gaur egungo eraikuntzek duten eragina. Eraikuntza horiek bisitariak hartzen dituzte eta leku eroso eta gozagarrira aktibatzen dute. Badirudi eragin hori berori dutela objektu horiek, antzeko *sex appeal-a* sortzen baitute. Erkatu Mario Perinola, *El sex appeal de lo inorgánico*, Trama, Madril, 1998.

modulatzen duela munduarekiko, mota ezberdinetako gauza eta desioekiko, eta asmakuntza originala mito bat dela beste mito baten zeruertzean, artearen aurrerabidearen mitoa. Ingurune horrekin elkarrizketan, Victor Arrizabalagaren jarrerak transzendentzia eta metafisika ezberdinak baztertzen ditu eta, espresio-sintaxi berriaren bidez, pop-a gogora ekartzen duten lanak birsortzen ditu. Eta bikain birsortu ere, kolore lauко lerroen bilbeagatik, bere figurak eta formak mugatzen dituzten lerro beltzen erabileragatik eta inguratzen gaituen objektu-paisaia nolabait era ludikoan jasotzen duelako, bere proposamenetan sarritan Amerikako Estatu Batuetako pop-aren eredu direnen oihartzun eta keinuak nabari dira: Roy Lichtenstein eta Tom Wesselmann. Arrizabalagak berak esan du, lehenengoarengandik formazko elementu batzuk interesatzen zaizkiola gehiago, bigarrenarengan, aldiz, bere ikonografia berezia nabarmentzen du.. Pop-ak artearen arloan ahalmen berri eta ezezagun bat zabaldu zuenez eguneroko irudietarako, eta errealismoa beste era batera adieraztea bultzatu zuenez, hau da, jabetze--joeren bidez, proposamen horiek hutsalaren antzaldatzearen poetika horretan kokatzen dira.

Nola hartzen du parte Víctor Arrizabalagak artean gertatu den berriaren aldeko mugimenduan? Artista honek badaki ez dagoela *ex nihilo* sorkuntzarik, berrikuntza- eta birsortze-erreserba bat dagoela, erabili eta eguneratu nahi dituenaren esku. Hori dela eta, hipotesi horretatik abiatuz, gure begiradan era liluragarrian sartzen den berrikuntza pop txiki bat garatzen du. Horrela, irudizko femeninoa (graziak, afroditak, ninfak, dontzeila biluziak), pintura-tradizio luze batetik atera duena, eskultura arin eta polit bihurtzen da. Gutxi ardua du altzairuzkoak izatea, tamaina handiko bere *Sirena de pelo ondulado* (2002) lanarekin gertatzen den bezala: bere figura modelatzen duten hutsune eta zirrikituek pisua eta grabitatea kentzen dizkiote, arintasun-efektu arraro bat sortuz. *Iron maiden* (2001), *Doña Clota* (2003), edo *Lolita* (2004) bezalako lanetan egiten duen eskala-jauzi horren helburua ez da monumentua hanpatzea. Aitzitik, eskultura horiek monumentu- eta historia-baliorik gabe jarraitzen dute aldaketa bat adierazteko, konplizitate-eremu ironiko eta ludiko bat. Baina, pieza txikiek ez bezala, euren

kromatismoa txikituz eta eraikitze-konplexutasuna handituz lortzen dute hori.

Arrizabalagak bere ibilbideari laurogeiko hamarkadako lehenengo urteetan ekin zion. Orduan, euskal artearen testuingurua honako zen: batetik, hirurogeigarren hamarkadaren erdialdean artearen Euskal Eskolako taldeen sorkuntzak (Oteizak zuzendua) jasan zuen porrota ezagutu zuen eta, bestetik, hirurogeita hamarreko hamarkadan beste artista gazteago batzuk bultzatzen saiatu ziren artearen ondarea. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearekin lotuta zegoen artista-belaunaldi berri batek (Txomin Badiola, Ángel Bados, Juan Luis Moraza, Pello Irazu eta beste batzuk) kontzeptualdaketa planteatu zuen. Aldaketa horri esker, nazioarteko testuinguruan gertatzen ari ziren haustura artistiko berriekin (minimala eta kontzeptuala batez ere) izandako elkarrizketen bitartez, Euskal Eskolako taldeek utzitako ondaretik erabat bereizi ziren. Urrun geratzen ziren – eurek ere garaikideak sentitzen ziren arren – *Gaur* izena hartu zuen azken abangoardiako eskultoreen printzipio desberdinak. Horrela gertatu ziren, hala nola, Oteizak espazioaren desokupazio aktiboa lortzeko egin zuen ahalegina, errusiar konstruktibismoaren ekarpenekin eta Mondrian eta Kandinskyren nozio abstraktu eta esoterikoekin lotuta dagoena; ahalegin hori proiektu experimental eta metafisiko bat izan zen, eta proiektu horren sintesiak artea, espiritualtasuna eta erlijioa batzen ditu. Edota, era berean, Txillidaren mugaren poetika eta materikoaren grabitazioa, bi jakintza-modu lotzen dituena: poetiko-artistikoa eta filosofikoa. Baita Mendibururen oinordetza erromantikoa ere. Mendibururen eskulturak ezaugarri informaleko abstrakzio baterantz jo zuen, arreta jarri zuen espresio-materian eta zizelkatzeko keinuan, eta herri-unibertso sinbolikoa aztertu zuen, naturarekin eta jatorrizkoarekin anaitasunez jokatzeko zuena. Izatez, laurogeiko hamarkadan sortzen ari zen eskultoreen bilbe horretan, euskal eskultore bikainen hiruko hark benetan eragin ahula izan zuen. Beste printzipio estetiko batzuk aukeratuko dituzte eta arian-arian euren eskultura-jarduna muntatze- eta instalatze-morfologietarantz modulatzeko joango dira. Muga lausoko sorkuntza-topologia horrek definitzen du oraindik euskal eskultura deitzen dugun horren gaur egungo

egoera.

Víctor Arrizabalagari dagokionez, lehenengo laurogeiko hamarkadako pinturak piztu zion arreta, baina hurrengo urteetan gehiago landu zuen eskultura. Hala ere, eskultura pinturaren objektuzko hedatze batetik sortu dela dirudi, bere hastapenetan nekez gainditzen baitzituen bi dimentsioak. Pinturan aurreirudikatu zituen, hain zuzen ere, bere eskulturetan antzematen ditugun postulatu estetiko horiek. Duela urte batzuetatik hona, bere lanek erabateko eskultura-logika adierazten dute eta pertzepzio konplexuagoa eta aberatsagoa eskatzen dute, ikuspuntu ezberdinetatik. Jolasa ere zabaldu egiten da gure begiradarako. Burdinazko xafla mihiztatu edo bihurritu egiten da, talka egiten duten pieza ludiko horiek sortzeko eta, horietako batzuk, Javier Urquijoren hitzetan, "ironia kritiko aerobotikoz" beteak daude. Era berean, bere lanek autonomia berria lortzen dute oinarria edo idulkia kentzean, edota sugarra edo kea bezalako gauza gorpuzgabeak forma solido bihurtzean, edo garrantzirik gabekoa funtsezko egitean, irudimenaren jolas askearen bitartez. Agian horregatik, gaur egungo ikono bihurtu diren bere natura hiletan agertzen du hobekien pop kutsuko jolas birsortzailea. Hala eta guztiz ere, bere ibilbidea egin du, albo batera utziz bai aipaturiko abangoardia artistikoaren eredu garrantzitsuak, bai eta desbideratze kontzeptual eta minimalean arreta handiagoa jarri zuen belaunaldi garaikidea ere. Halere, *Dolmen* eta 2004ko bere eskultura-lanetariko batzuk Oteizak landutako kuboaren desokupazioaren poetikarekin (asmo neoplastizistarekin birsortua) ahaidetu daitezke modu ludiko batean. Jolas konstruktibista horretan, desegindako formen memoriaz eta azalera karratu edo laukizuzenetan jarritako kolore primarioez (gorria, urdina, horia, zuria) baliatzen da, baina hori guztia Mondrian edo Théo Van Doesburg-en atxikimendu teosofikorik gabe egiten du.

Sortzen dituen figura eta objektuek pintura- eta eskultura-literaltasuna bera baieztatzen dute; halere, eragiten duten elkartasunezko atseginetik harago, esan daiteke garrantzirik gabekoak bihurtzen direla, testu honi hasiera ematen dioten Lyotard-en hitzen zentzuan. Era horretan, kutsu

garaikideko ingurune manieristan sartuko litzateke, "estiloa" balio bihurtuz, ezagutzeko moduko eraikitze-zifra bezala. Horrez gain, bere pinturetan, eskultura-lanetan bezala, koloreak hutsak dira eta koloreen bizikidetzak landu arren, ez ditu elkarrekin nahasten; aldi berean, erresonantzia neoplastizista eguneratzen du. Lan batzuetan garai modernoetako glamour haren kutsu nostalgikoa ere badago, Javier Urquijo<sup>2</sup> kritikoa ikusi duen bezala; dena den, badirudi leundu egin duela, ikusmeneko hizkera neopop batetik egindako jabetze ironikoaren bitartez. Esan daiteke atsegin artistikoa nabarmentzen duela (kolore laueta oinarritutako kromatismoa erabiliz eta, era berean, etxeko objektu horien formazko jolasen bitartez), kontzeptu-bitartekotza baten aurka.

Agian, pop kutsuko manierismo-irrika hori – horren bidez, objektuen indarra galdu gabe estilo-asmoa nabarmentzen da – eskultura-arloan duela gutxiko historiak arbuia duen desbideratze ez-material eta kontzeptualaren kontrapuntua da. Arlo horrek "eskultura" kontzeptuaren zabalkuntza semantikoa jasan badu, Rosalind E. Krauss-ek ikusi zuen moduan 1978ko "Eskultura eremu hedatua" (*La escultura en el campo expandido*)<sup>3</sup> bere saiakera ospetsuan, bi ezaugarri kontuan hartuz izan da: monumentuaren logika desagertzea bere deslokalizazioaren bitartez, eta monumentua funtzionalki lekutu gabea eta autoerreferentziala egitea. Horrela, Krauss-en hitzetan, "oinarriaren fetitxizazioaren bitartez, eskultura beherantz hedatzen da, idulkia irentsi eta bere kokapenetik banatu arte; eta eskulturaren beraren materialen edo eraikitze-prozesuaren irudikapenaren bitartez, eskulturak bere autonomia adierazten du"<sup>4</sup>. Eta bilakaera horretan, eremu hedatua sortzen da, aurkakotasun-multzoa (bere lau mugaketa-muturrak paisaia, ez-paisaia, arkitektura, ez-arkitektura izango lirateke) eztabaida-gai eginez, eta aurkakotasun horien artean dago esekita *eskultura* kategoria. Horrela, *eskultura* kategoriari eremu berri hauek gehituko litzaizkioke: *toki seinatuak*, *eraikitze lekutua*, eta *egitura axiomatikoak*<sup>5</sup>. Transformazio horiek tradiziozko eskulturaren nozioari berari eragiten diote, bai eta bere oroitzapen- eta monumentu- balioaren galtzeari ere; horrek berrikuntza bultzatuko du, bai formari bai landutako gaiei dagokienez. Javier Maderuelok ikusi zuen bezala, "egitea eskulturaren zeregin berria

<sup>2</sup> Javier Urquijo, «Glamour y neo-pop» *El Mundo*-n, 2003-04-16, 57. or.

<sup>3</sup> Rosalind E. Krauss (1996). *La originalidad de la Vanguardia y otros mitos modernos*, Alianza Editorial, Madril, 288-304. or.

<sup>4</sup> Rosalind E. Krauss, aipaturiko lana, 293. or.

<sup>5</sup> Rosalind E. Krauss, aipaturiko lana, 297. or.

izango da. Egitearen jardunak, bere aldetik, eskultura-prozedura berriak garatuko ditu, hala nola, armatzea, muntatzea, fabrikatzea edo eraikitzea<sup>6</sup>. Cerecedak, bere aldetik, *Hacia un nuevo clasicismo* lanean (1999) gaineratu du ezinezkoa dela behin eta berriz agertzen diren bi gai saihestea: lehenengoa da horrek espazialtasunarekin duen lotura eta bigarrena tradiziozko eskulturak bere burua deuseztatzea<sup>7</sup>. Espazialtasunak espazioak eta denborak elkarri eragiteko duten erara eramaten gaitu. Araudi klasiko eta barrokoak elkarreragin hori modulatzeko saiatu dira balio intenporal eta aldaezinak erabiliz, eta horrek interesik gabeko monumentu-errepikatzea ekarri du, bai eta eskultura modernoaren espresioa geldiaraztea ere. Baina bilakaerak eskultura garaikidea hanpadura espresionista berri baterantz edota adierazpen minimalista eta kontzeptual ezberdinetara eraman zuenean, kanon modernoek euren burua deuseztatzekeo hasitako prozesua azkartu egin zen. Beraz, Espainiako eta nazioarteko testuinguruan ikus daiteke eskultura deitu zaion horren muga konbentzionalak zabaldu egin direla, eta dagoeneko tradizio batek ere ezin du helburu izan tradizio nagusi moduan finkatzea. Beraz, kontua da onartzea eskultura-arloa tenkatu egiten dutela bere aniztasun menderaezinak eta paradoxa haizukorrek, ohikoa eta hauslea denaren arteko norgehiagokan. Gaur egun arlo hori berriz ere zabaldu da, zenbait proposamenek eskulturak eta arkitekturak objektu-ingurune motako hibrido bihurtzen baitituzte, eta horiek, euren aldetik, espazioa eta tokia berriz definitzen baitituzte, testuinguru espezifikoko eta heterogeneo, metamorfiko eta askotariko batean.

Eskultura-testuinguru zabaldu horren aurrean, Víctor Arrizabalagaren objektuek kontzeptu-grabitarearen galera erakusten dute, eta beharrezkoak ez balira eta interesik ez balute bezala azaltzen dira, eskulturak bere mugetara izandako zabalkuntzaren testuinguruan dagoen ikuspegi nagusi horretatik. Baina interesgarri bihurtzen dira beste ikuspuntu batetik, irudizkoaren eremua eta legea birstortu eta hedatzen baititu. Irudimenaren eta sentsibilitatearen jolas askera jotzen dute, egunerokoa eta bere ezustekoak anaitasunez jasotzeko. Berrikuntza arina edo sakona izan daiteke, etengabea edo zaharkitua, baina benetan funtsezkoa dena da Arrizabalagak duen gaitasuna gure arreta bereganatzeko eta

<sup>6</sup> Javier Maderuelo "El fructífero camino", *La deshumanización del arte lanean*, Salamancako Unibertsitatea, 1996, 120. or.

<sup>7</sup> Miguel Cereceda (1999) *Hacia un nuevo clasicismo. Veinte años de escultura española*, Valentziako Generalitatea, Valentzia, 9. or.

asmakuntzarako grina iraunarazteko, ezberdintasunaren eta errepikapenaren dialektikari esker. Hori guztia nolabaiteko asmo satirikoarekin adierazten da bere lanetan. Forma eta gauzen arteko jolas bihurriak atzean utzitako elkarrizketa berreskuratzen du. Ikusi daitekeena beste aukera batzuetara zabaltzen da, piktorikoaren oroitzapen bat eransten duen sentsibilitate neoobjektual batetik. Sekula ikusi gabeko tramankuluak, ihes-lerroak erabiliz egindako graziak, altzariak ikusmen-metafora bezala: agian, bizitza fikzio egiteko beste modu batzuk dira, eta gure esperientziako etxeko tokiak apaintzeko beste era batzuk – ezer metafisikorik erantsi gabe eta pop edertasunarekin. Agian irudizko-egiazkoaren beste forma batzuk egitera jolasten dute. Eta nostalgiarik gabeko glamour neopop hori gehitzen dute. *Fumando espero...* (2002) bere lanaren espresio-aurrezteak bete-betean adierazten du ahalegin ironiko hori. Era berdintsuan, *Moka Express* kafe-makina ospetsua aipatzeko duen modua ere adierazi daiteke; kafe-makina hori Alfonso Bialetti-k diseinatu zuen 1930ean eta diseinu modernoaren kulturako ikonoetariko bat bihurtu da.

Artista honek badaki errepikapen- eta ezberdintasun-dinamikak artea eta bizitza azaltzen dituela, sorkuntza garaikideak ereduazko adierazpen-modu oro deuseztatu duela, bai eta balio arauemaile oro eta bereizketa generiko oro ere (Danto-k bere azterketan adierazi duen bezala<sup>8</sup>). Horregatik, bere aukeretako bat da arintasuna oinarri hartuta egiten duen sortze-ariketa, edota aipamena eta jabetzea eraikitze plastikorako estrategia emankor bihurtzea. Beste irtenbide bat, azken finean, bukatzen ez den jolas birsortzailerako.

---

<sup>8</sup> Ikus Arthur C. Danto (1999) *Después del fin del arte*, Paidós, Bartzelona. Pentsalari honek, garaikidetasuna definitzerakoan, aniztasun estetiko handiena duen garaia dela dio: "Guztia posible bada, ezer ez dago historikoki aginduta: beste era batera esanda, gauza bat beste bezain ona da. Eta, nire ustez, horixe da historia ondoko artearen baldintza objektiboa". Arte garaikideak desegin egiten ditu historiarekiko eta ereduazko adierazpen-moduekiko mugak eta, aztertzaile honen ustez, beste ezaugarri batzuek definitzen dute arte garaikide hori: baliabide heteroklitoen collageak eta edertasunean oinarritutako esentzia galtzeak.

## ANIMAZIOA...

**(Animazioak jarduera, artegatasuna, mugimendua eta gainera, ikuskizuna esan nahi du, eta gaur egungo arte onaren ezaugarri nagusiak ditugu horiek. Gainerakoak gogaitzea dakar.)**

Victor Arrizabalagari, lehenago batetik, planotik ihesi ari zitzaizkion formak. Eta orain, jada planotik kanpo direlarik, animatu, bizkortu, asaldatu, mugitu egiten zaizkio alaitasunez beterik. Kolore eta formen jaia dirudi, oraitzapen eta inspirazioen betekada...

Gelditzen ziren hondar-tentsio piktorikoak arinduta, formak -nioen- malgutu egin dira espazio erreala modu aktiboan inbadituz. Nik esango nuke halako ironia kritiko aerobikoz inbaditu dutela, egin ere, kasurik gehienetan. Gure garaiko lekuko gisa, harako ariketa hura ageri da hor, denon osasunaren adituek ziurtatzen dutenez gorputza eta burua sasoiko mantentzen dituenak. Baina goazen harira.

Lichtenstein-ek hirugarren dimentsioa plano bidimentsionaletik inbaditzeko itxura irudikatzen zuen, eta Victor Arrizabalagak, alderantziz, objektu tridimentsionalaren hautematea bi dimentsioetara murrizten/mugatzen du. Behaketaren lege naturala bortxatzea esan nahi du horrek, baina efektu hori naturan bertan ere topa daiteke halako batzuetan tupustean; hemen, ordea, gogoetaren ondorio da. Azken batean, bada, eskultura hau pinturatik elikatzen da eta pinturara itzultzeko itxurak egiten ditu, artea fikzio hutsa delakoa berretsiz.

Arrizabalagak, printzipioz, plano du abiapuntu -burdinazko xafla, hizkera eskultorikoa sustatzen duen ebaki/volumen gero eta handiagokoa-, eta ez du lagatzen. Koadrotik kanpo emaniko lehen pausoetan animazio eszeniko plano bilatu zuen. Etapa hura gaudituta geratu zenean, eboluzio bidezko irtembide bila aritu zen eta mugimendua aurkitu zuen. Baina mugimendua ez da posible planoan. Beraz, ezinbestekoa egin zitzaion espazio eszenikoz aldatzea, eta azkenik hiru dimentsioetara jo zuen.

Kezka/interesa sortarazten ziona mezua, objektuen errepresentazioa,



naturalismoa izan zenean, Arrizabalaga ez zen gelditu bolumenean. Orain ez du halako kezkarik, baina edonola ere kontu handiz zaintzen du bolumena. Baina bolumenaren presentzia testimoniala aldatuz doa. Orain balore horri gainjarrita erritmoa, imintzioa, tolesa, izurra daude, piezari hizkera berriaz gozatzeko aukera emanaz.

Piezak orain itzalak sortarazten ditu bere gain, eta horixe dugu escultura deskribitzeko modu bakarra. Eta hala, lehen ez zeukan gauza bat lortu du: hutsa eta haren alderantzia, betea. Joko horretan, negativo-positibo jokoan, gainera, ebakia darabil, eta horrek espazio errealean akzioa sortzea errazten dio.

Baina bada beste zertzelada bat bereziki liluratu nauena. Lerro margotuek aurreko posturan/ordeneandesez giten diren bitartean, konbinazio-aukera aniztuz, formen sintesia espazioan hedatzen da arkitektura sortuz. Posibilitate berrien bila ari da, bai "Bainulari andrea"ren hankarekin arkuak iradokiz, edo agian zubia edo norabait sartzeko atea, bai andre baten gorputza belaontzi baten brankan jarriz irudi gisa...

Arrizabalagaren obsesio pertsonalak kezka erakusten dute. Hasiera bateko apaingarrizko piezatxo haieetatik erdibideko beste batzuetara pasatu da. Makroidea baterako proiektuen airea dute, eta iritsiko da azkenean makroidea hori, eta natur edo hiri unibertsoarekin, beti ere irekia, publikoa izango den unibertsoarekin, egingo du topo; kontzeptualki monumentalak dugu escultura hau, neurri handikoa ez izan arren.

Oraingo honetan, beti ere errealitateari lotuta, bidai berri bat hasi du Arrizabalagak oroimenean zehar; animazioz, bizitasunez, artegatasunez, mugimenduz beteriko abentura bikaina... Zera, artearen ikuskizuna.

VICTOR ARRIZABALAGA  
**BIZI-INDARRAREN BULTZADA**

*Erdialdean elkartu ziren,  
hemen lana dago, han baretasuna*  
D. A Freher

Arrizabalagaren lanera hurbiltzea ariketa optiko iradokitzailea da, gure lehenengo hurbilketatik intentsua izango dena, hura oso azalekoa izan arren.

Badirudi, sormen biribilean egileak den-dena bildu nahi duela, guztia hartu nahi izango balu bezala. Era berean, *zeharkakotasunez* betetako irudia antzeman daiteke, plastikoki ulertua, eta haren itxuraz mundutarra den teleologiak ageriko gonbitearekin garamatza gizakion desirarik ohikoenaren bila, hau da, egileak eragozpenbiderik gabe sartzen digu artearen bidez une zoriontsura iristeko irrika, une atsegina, kasu honetan, zalantzarik gabe, haren koloreanitzeko apustua ikusteak sortzen diguna.

Hortaz, egilearen irteera *konplexugabetu* eta neo-pop hori, beste edozer gauzaren gaineratik, artistaren aterpea naturaltasun osoarekin zeharka dezagun zabalik utzitako atea da. Igaro ostean, hurbilen dugunarekin eta gauzarik xumeenekin berriro elkartzeko deia egiten digu, gudan gozamen atsegin eta *erreferentzianitzekoa* eragiteko, ia beti potentzialtasun aztergabeen onbeharrean dagoen guztiarekin elkartzeko deia, alegia. Grazi faltan ez dagoen jite honetako paradoxa baten aurrean egonik ere, sortzaile honen lanek, ustekabeen, baldintzatu gabeko elkarrizketa pizten dute berehala prest agertzen zaigun ikuslearen konplizitatearekin.

Egia da, artistak dena prest duelako sentsazio irmoa helarazten digu, eta haren gonbite plastikoaren erabatekotasunak sortzen dituen galderak erantzuteko prest agertzen zaigu beti.

Bereziki deigarria iruditu zaigu, esaterako, egile honen eskaintza piktorikoan

lanak enkoadratzeko duen obsesio neurrigabeak. Izan ere, sarritan markoa bera enkoadratzera ere iristen da, edo enkoadrea bera mugatzera ere, egileak trebetasun eta ozartasun handiarekin erabiltzen duen alborakuntzen eta gainezartzeen jolas ditiranbikoan.

Arrizabalagaren lanera hurbildu diren kritikariek behin eta berriz esan dute euskal artista honen eta Roy Lichtenstein-en egite eztabaidaezinaren artean begi-bistako parekotasunak daudela. Zalantzarik gabe, apreziazio ukaezin hori geure egitea baino ez dugu. Hala ere, komikiari etengabeko keinuak egiten dizkion unibertso partekatu hori, sarritan, Durangon bizi den artistari txiki geratzen zaiola dirudi.

Hala da, Arrizabalagak masen kulturatik jasotzen du inspirazioa, ez kontsumo gizartearen gainbehera kolokan jartzeko, Lichtenstein-ek egiten zuen bezala, sentsazio estetikoaren iturri agortezina pizteko, gure garaiko amu gisa kolore-tramek duten garrantzia umiltasun handiagoarekin aintzatesteko baizik.

Hala ere, Arrizabalagaren lanean aurki daitezkeen parekotasunik handienak Durangoko artistak Tom Wesselmann-ekin eta haren irudi oldartsuekin duen sormen-antzekotasunean daude. Azpimarratzekoa da, egile horren plastikak, Arrizabalagarenak bezala, ikusmen-freskotasun eta ekonomiarekin harrapatzen gaituela, eta aintzatespen hura hasieran nahiko uzkurra izan zen kritikatik etorri zitzaioala. Hortaz, gure artistak eta Cincinnatikoak ustekabeen bat egiten dute pop-imajinagintzaren eta a priori estetikoaren bilbaduran.

Beste ildo bati jarraituz, baina egile honen lanei darien perfektzionismo kutsutik beti, lerroaren mugaketak kezkatu agertzen da lan guztietan, eta sormen-muga desberdinak tokibanatuz ordenatzen du.

Horrela, pertsonaia edo irudi bakoitzari eman nahi zaion garrantzia hierarkizatzen da haren oihaletan. Jakina, une bakoitzean forma zehatzak koadroan ipintzeko *espazialtasun*agatiko kezka, laztasunik gabe egiten du Arrizabalagak. Izan ere, artistak berebiziko garrantzia ematen dio obraren hasierako aldiari. Kezka horren ezaugarri berezia marrazketaren jakite akademikoa da, eta horixe da, hain zuzen, haren ekoizpen plastiko guztia izango denaren hazia.

Halako eraz non artistaren ibilbide osoan –erabilitako euskarria (eskultura barne) zeinahi dela–, forma-ardura handia aurkitzen dugu, aurrez pentsatu eta xehetasun guztiak osatu arte berrazterturik egon behar duen obra kaudimenez eta ustekaberik gabe gauzatzeko artistak eskura izan behar dituen teknika guztietan oinarritzko eta beharrezkoena gisa marrazketa finkatzeko.

Arreta merezi izan duen beste arloetako bat egileak artista ospetsu batzuei eskaintzen dien tributua da, nahiz eta, sarritan, aintzatetsia izateko *berrikuspena* behar izaten den, edo, are gehiago, ibilbide osotik haratago doan ikuspegi holistikoa. Hala bada, euskal sortzaile honen lanei buruz esan daiteke beti dagoela dirudiena baino gehiago. Lehen esan dugun bezala, hala da, oharkabean geratzen diren arren, zehaztasun txikiko lehenengo ikusketaren ostean, Henri Matisse-ren obrarenganako igorpen ugari aurki ditzakegu. Giza irudiei buruzko marrazki koloreztatueta batzuetan antzeman daiteke hori, *bidimentsiotasunak* ezartzen dituen mugak apurtzeko joera gogorra hartzen baitute. Ez ohikoak diren giza estilizazio askotan Brancusi-ren lanik adierazgarrienekiko parekotasun asko antzeman daitezke.

Azkenik, nola ez bada, esan daiteke Arrizabalagaren antzekotasunik handienak Andy Warhol-ekin finka daitezkeela, *beat* kolateralitatea duen haren ikonografia *postduchanpiarrerekin*, haren lanetan etengabe aurki daiteke eta.

## **ESKULTURA**

Agian modalitate honetan ikertzen dute artista honen konfigurazioek ekarpen piktorikoetan antzematen genuen sormen-jario guztia.

Burdinazko xafla, lodiera egokian, material moldagarri gisa hartuta, euskal sortzaile honek berretsi egiten du altzairua menderatzeko ahalegin itzela. Eta ondorioz, Arrizabalagaren lanetan materialaren zurruntasuna eta itxura hauskorreko eta delikatuko akaberaren malgutasuna orekan agertzen zaizkigu.

Euskal artista honen lanak ikusten ditugunean kolorearen aldeko apustu neurrigabearen aurrean gaudela iruditzen zaigu; biziaren osagarria den formula

kaleidoskopikoarekin batera doan kolorea, alegia. Kolore horretan eskala kromatikoko oinarrizkoak agertzen zaizkigu, Arrizabalagak une oro azpimarratu nahi duen purutasun-nahiarekin. Egilea eroso sentitzen den fase horretan hain zuzen, egileak oihala gainditu, eta hiru dimentsioen mundura igarotzen da erabakitasun handiarekin. Beste euskarri batzuetan egindako beste lan batzuk aspalditik ari ziren zalantzarik gabeko jite haptikodun plano honetan kokatzeagatik borrokan.

Kokatuta dagoenean eta esfera *bolumenikoan* inola ere itzultzerik ez dagoenean, egileak proposatzen digun diskurtso plastikoak bikoiztasunean eta iradokizun maltzurrean du unerik gorena.

Eskulturaren trataera orotan obra espazioan kokatzeagatiko kezka nabarmena agertzen da, erabat agerikoa eta inola ere doakoa. Horrela, bada, tratatzen diren gaien ozartasuna gorabehera, egileak ez dio uko egiten galdera-jiteko nolabaiteko kezkarri, ia definizioz, eskultura-irudikapenekin batera datorren etendurari berari dagokiona.

Aipatu berri dugun etendura horretan, azpimarratzekoa da giza irudien (hobe esanda, irudi gizatiartuen) eszenaratze zorrotza; bere ninfen edo grazien kasuan, beren ezaugarri femeninoak "inozenteki" erakusten dizkigutenean, kasu. Are gehiago, berriro bilatu nahi duten naturaltasuna lortu nahian, *urrearo* modukoaren bila ari balira bezala, alai, dibertigarri eta beti ausart atsegin ematen diguten etengabeko paratzeen erabateko trebetasun eta desinhibizioa ondorioztatzen dugu.

Honetara ezker, Arrizabalagak proposatzen digun tematikatik bereziki azpimarratu nahi duguna haren fijazio fetixista da; objektu anitzak ikono bilakatzen dituen, adierazpen eremura hurbilarazi baino gehiago, eduki identifikagarri ukaezina duten elementuak totemikotzat har ditzakegun irudien bidez erreferentzia bihurtzen dituen.

Horrela, zenbait eskulturatan emakumeen orratz-takoizko zapatak agertzeak, esaterako, gehiago bultzatzen du lana eremu alai eta jai-giroko horretara; kromatikoki egoki arazturik, liluragarri agertuko zaizkigun eskultura-lanetan jarraikortasuna izango duen eremura, alegia. Horrela, gu limurtzeko jolas

horretan ez dugu joko bikoitzik aurkitzen, egunerokotasunarekin dugun harremanari arreta egin diezaiogun deia luzatzen digu soil-soilik. Horretarako, proposamengileak kolorez janzten ditu lanak, begiratze hutsarekin, ikuslea partaide sentiarazten duen jaia iragartzen digun kolorea.

Egile honen imajinagintza magiko eta hiru dimentsioko hori osatzen duten eskultura guztietan oso interes edo jakin-min bitxia dago, arretaren tentakuluak objektu bitxi dei ditzakegun asmamenetan luzarazten dizkion berezitasuna. Gailu horietako batzuk, *Soliloquio* izeneko lana, esaterako, kaiola baten barruan dagoen tik-tak erloju bat da: zalantzarik gabe *eskultura* bihurturiko metafora batera igortzen gaitu, denbora harrapatu ezina, alegia, denbora barne-igarotze hotz eta errukigabearen berri ematen digun erloju-mekanismoaren gainetik dagoelako.

Hiru dimentsioko beste arkitektura batean, panpina errusiarrekin jolasten da trebetasun handiarekin, sormen-lan artistikorako ustekabeak duen garrantzia errebindikatzeko ariketa argian. Ezustea, ondorioz, baztertu ezin dugun elementua da, bizipen-monotonia eroso baina absurduan finkatzeko arriskupean egon nahi ez badugu behintzat.

Hari berari jarraituz, Arrizabalagaren lanean egilearen begirada biziarekin pertsonalizatutako beste artikulu batzuk ere aurki ditzakegu. Horrela, kafe-ontzi alai bat agertzen zaigu desinhibiturik, *Moka Express* kasuan. Zerrenda honetan beste hainbat ere badira: liburu batzuk, zertaz jakin barik, babestu nahi izango bagintu bezala, zabalik agertzen den aterki bat, esaterako.

Elementu aldarazi horiek guztiak, proposatzen digun eskaintza artistikoaren bidez, modelatu behar diren tramankulu bilakatzen ditu, azkenean objektu amaitu izan daitezen, jite artistikoko ziurtagiria emango dion *metadiskurtsu* plastikoaren barruan.

Bere hiru dimentsioko ibilbide horretan laguntzen dion sormen-jario horren bidez, egileak hautatutako objektuei, haiek duten garrantzirik gabeko egunerokotasun horren gainetik, artelan bihurtzea ahalbidetuko dien aukera eskaini nahi diela dirudi; berehala antzematen dituen ikusleak begira ditzan eskubidea emanik.

## NEURRI HANDIKO ESKULTURAK

Formatu handiak, nola ez, eduki du lekuri Victor Arrizabalagaren eskultura lanetan.

